

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

Euskal Herriko aldizkari marxista

www.euskalherriasozialista.net

57 zenbakia - euro 1
laguntzarekin: 2 euro



**Hauteskundeetan
eta eremu guztietan
eskuina garaitzeko**

**Programa
sozialista
defendatu eta
kalea hartu!**

2. Editoriala: Hauteskundeetan eta eremu guztietan eskuina garaitzeko, programa sozialista defendatu eta kalea hartu! • 4. Catalunya: Estatu espainiarraren errepresioa eskubide nazionalen aurka
6. Terrorismo jihadistari ez! Gerra inperialistari ez! • 7. Azaroaren 26ko Bizkaiako ikasle greba
8. Arnaldo Otegiaren askatasuna eta sozialismoaren aldeko borroka • 10. Federico Engels Fundazioaren argitalpen berria: David Riazanoven "Marx y Engels" • 12. Errepresio eta okupazio sionistaren aurkako borroka palestinarraren berpiztea • 16. Siriako joko inperialista

Hauteskundeetan eta eremu guztietan eskuina garaitzeko Programa sozialista defendatu eta kalea hartu!

PPren azken legegintzaldia langile klasearen eta eskubide demokratikoen aurkako erasoez beteta egon da, baina gizarteko korrelazio indarretan eragin handia izan duten borroka ugariz ere bai. PPrek erasoaldiak eragindako errebolta sozialaren tamaina ez zen ikusten 70eko hamarkadan frankismoaren aurka antolatu ziren mobilizazio handietatik.

M15aren leherketa 2011n eta greba orokorrak 2012ko martxoan eta azaroan; urte hauek ikasle mugimendu handia, Gamonal auzoko altxamendua eta Duin-tasun Martxa 2014ko martxoan Madril-en milioi bat parte hartzaileekin; pagen ezabaketaren eta kalera-tzeen aurkako sektore publikoko langileen manifestazioak, meatza-rien martxak, Marea Zuria edo lan-gileen gatazkak, erabakitze eskubi-dearen aldeko Diada masiboak Ca-talunyan eta, nola ez, Euskal He-rrian eskubide demokratikoen eta preso politikoen eskubideen alde izan ditugun manifestazio guztiak.

2014ko ekainean Rubalcabak bere dimisioa iragarri eta Juan Carlos I.ak erregetza utzi zuenean, begirale politiko askok mobilizazio soziala eta Podemosen sorrera planteatu zituzten Estatu espainiarreko auzi erabakigarri bezala. M25eko hauteskunde europarretan Pablo Iglesias-ek zuzentzen duen erakundeak milioi bat bozka eta 5 eurodiputatu lortu zituen, bipartidismoari kolpe gogorra emanez. Hurrengo hilabeteetan, Podemoseko milaka talde antolatu ziren Estatu guztian eta bertan milaka gazte eta langilek hartu zuten parte. Indar honek bultzada handia eman zion Podemosi eta 2015eko urtarrileko CIS-en inkestan PSOE eta PPrek aurretik zen (boz-ken %28arekin). Babes hau baieztatu zen hilabete horretan bertan, Ma-

drilen 300.000 pertsona bildu zituen Aldaketaren Martxan.

Ez ezkerreko, ez eskuineko?

Sistema kapitalista krisi sakona jasaten ari da 2008tik. Milioika langile langabeziara bota dira eta soldatak ikaragarri murriztu dira. Birtartean, murrizketa sozialak, pribatizazioak, prekarietatea eta desberdintasunak iraganeko lorpenak suntsitzen ari dira. Burgesiak ez du zalantzarik klaseko gerra honetan gogor ekiten. Bost axola zaio bere politikak eragiten duen sufrimendua. Arrazoi honengatik, langile fami-lien bizi baldintzak hobetzeko edo-zein saiakerak kapitalista handien eta hauen instituzioen (gobernua,

parlamentua, Nazioarteko Diru Fun-tsa, Mundu Bankua, Europako Ban-ku Zentrala...) aurkako borroka es-katzen du. Hauteskundeak, Grezia-ko adibideak erakusten duen bezala, ez dira nahikoa: politika iraultzailea eta mobilizazio eraginkorra behar dira klase dominatzaileari aurre egi-tek eta gizartea aldatzeko.

Milioika pertsonen ilusioarekin begiratu zioten Podemosi, baina fe-nomeno honek mota guztietako arri-bistak eta oportunistak erakarri zi-tuen eta horrek indartu egin zituen zuzendaritzaren diskurtso interkla-sista eta eskuinerantzko bira. Era-kunde tradizioaletatik gero eta gu-txiago ezberdintzen joan da Podemos, eta aldi berean, klase dominatzaileak bultzatutako Ciudadanos alderdiaren gero eta antz handiagoa hartzen. Bi-tartean, ezkerreko ideiak defendatzen edo sozialismoaren alde borrokatzen dutenak gutxietsi dituzte.

Pablo Iglesias, Errejón, Bescan-sa, Pascual eta zuzendaritzako ki-deek behin eta berriro esan dute ezkerrean eta eskuinaren arteko diskurtsoetik atera beharra dagoela eta beraien proposamenek "zentzu



komuna” dutela, PPren politika axo-lagabekeriak zuzenduko balu beza-la, eta ez kapital handiaren interese-sek. Klaseko eta ezkerreko programa-ri uko eginez, beste alde batera begiratu dute atzerakoiek Venezue-lako iraultza eraso dutenean, edo are okerrago, udaletxeetan edo parla-mentuetan kolpista faxisten aska-tasunaren aldeko ebazpenak babes-tu dituztenean. Tsiprasen kapitula-zioa ere justifikatu zuten, beraiek ere egoera berean berdina egingo zutela esanez.

Zoritzarrez, hauteskundeak ger-turatu heinean biderkatuz joan dira atzerakadak: “Zor ilegala ez ordain-tzea” delakoaren eta sektore estrate-gikoen nazionalizaziok baztertzea, erretiratze adinaren murrizketareki-ko anbigutasuna, AEB eta NATO-rekin akordio militarrek betetzea...

Albert Riveraren alderdiaren go-rakada Podemosek “erdigune” politi-kora egindako birarekin batera ger-tatu da. Serio eta fidagarria izatea, gainontzeko alderdiei Estatu Akor-dioak eskaintzea, “trantsizio garaiko izpiritu onena” berreskuratzea (ora-in dela ez asko 78ko erregimenare-kin hausteaz hitz egiten zuten)... PSOE eta Ciudadanosen programak ere horrelako gauzez beteta daude.

Podemosek uko egiten dio EHBildurekin aliatzeari

Zalantzarik gabe, azken urte haue-tan milioika pertsonen kontzientziak aurrera pauso garrantzitsua eman du: parlamentarismoa eta ustelke-rian murgilduta dauden alderdi tra-dizionalak auzitan daude. Askoren-tzat kapitalismoa bera auzitan jarri den une hauetan, sektore askok be-harrezkoa ikusten dute ezkerrearen bandera altxatzea programetako eta ekintzetako kontzesioei amaiera emateko. Marxismo iraultzailearen ideiak berreskuratuko dituen ezkerria.

Helburu honetan aurrera egiteko baldintzak badaude. Maiatzaren 24ko udal hauteskundeek garbi utzi zu-ten: hiri handi askotan, herri bata-suneko hautagaitzek emaitza oso onak eskuratu eta eskuina kanpora-tu zuten. Hamarkadetakoz zapal-kuntzaren ondoren, udaletxeetara eramane ziren errebolta sozialaren eskaerak: etxe kaleratzeen amaiera, pribatizazioen bukaera, zerbitzu so-zialen defentsa eta hauen bermuni-



zipalizazioa, hezkuntza eta osasun publikoa, oroimen historikoa...

Langile klasea eta gazteria bo-rroka egiten duen ezkerrearen bata-suna eskatzen ari dira, eta hori ez da adierazten Trantsizioa izpiri-tuan, mobilizazio handietan baizik. Hau da gehiengoa eskatzen ari de-na, baina Podemosen zuzendaritzak ahal zuen guztia egin du aukera ho-ni bidea ixteko. Podemoseko ardura-dunak PSOE “aldaketa politikora” erakartzeaz hitz egiten aritu dira, eta bitartean uko egin diote Euskal Herrian EHBildurekin akordiora heltzeari edo Estatu mailan Izquier-da Unidarekin. Zein daude gertuago behar dugun aldaketatik? Pedro Sanchez edo ezker abertzaleko, Iz-quierda Unidako, etxe kaleratzeen aurkako plataformako... kideak? Erantzuna erraza da.

EH Bilduren aldeko botoa, autodeterminazioa eta sozialismoa

Euskal Herria Sozialistatik, EHBil-duren aldeko botoa eskatu dugu abenduaren 20ko hauteskundeeta-rako. Aldi berean, beharrezkoa dela uste dugu ezker abertzaleak mobili-zazio soziala bultzatzea eta kapita-lismoaren aurkako borrokan progra-ma sozialista defendatzea.

Urte hauetako esperientziak era-kusten du beharrezkoa dela ezker abertzaleak programa iraultzaile, so-zialista eta internazionalista defenda-tzea gure herriaren askatasuna lor-tzeko. EH Bildu eta Sortuko zuzenda-ritzaren gehiengoa EAJrekin fronte

subiranista eratzearen alde agertzen da eta bitartean gutxiagotzen joan da murrizketen aurkako mobilizazio so-ziala. Zalantzarik gabe, egokia da ins-tituzioetan parte hartzea ezkerreko politikak defendatzeko, baina gau-zak aldatzeko indarra ez dago hor, kaleetan, borroketan eta mobilizazio sozialetan baizik. Estrategia ezin da izan euskal burgesiarekin akordiora iristea: euskal kapitalistekin eta ho-nen alderdi politikoa den EAJrekin. Ez dira irtenbidea, arazoa baizik, eta burgesia espainiarraren eta frantzia-rraren aliatuak izanik Euskal Herri-ko zapalkuntza nazional eta soziala-ren arduradunak dira.

Garbi daukagu bozkatzeko ez dela nahikoa. Parlamentarismoak era-kutsi du nolako mugak dituen, are gehiago instituzioak ez badira kapi-talismoaren aurka langileak eta gaz-teak mobilizatzeko eta antolatzeko erabiltzen. PP, EAJ, UPN eta Ciuda-danos garaitzeko eta gehiengo sozia-larentzat aldaketa politikoa erreali-tate bihurtzeko, programa sozialista defendatuz erasoaldira doan ezkerria behar dugu, eskubide demokratiko nazionalen defentsa, autodetermina-zio eskubidea barne, gizartearen eral-daketara lotuko duena. Hau da egin-kizun garrantzitsuena eta horretara bideratuko ditugu marxistok gure indar guztiak.

**Sozialismoa,
autodeterminazioa, amnistia!
Antolatu Euskal Herria
Sozialistan eta egin borroka
gurekin programa honen alde!**

Catalunya: Estatu espainiarraren errepresioa eskubide nazionalen aurka

Askapen nazionalaren eta sozialismoaren alde! Beharrezkoa da CUPEk Mas eta Convergenciarekin haustea!

PP, PSOE eta Ciudadanosek Catalunyako eskubide demokratiko nazionalen aurka jarraitzen dute etengabe. Erregimenaren komunikabideek “estatu kolpea” ere deitu diote Convergenciak, Esquerra Republicanak (Junts pel sí) eta CUPEk Catalunyako Parlamentean aukeztutako adierazpenari, frankismo garaian erabili ohi zen antzeko hizkera erabiliz.

IBON ARTOLA

Legearen errespetuaz, tribunalez edo Konstituzioaz hitz egiten duten hauek, ordea, ez dute arazorik izaten legeak hausteko banku eta enpresa handien interesak defendatzeko garaian. Propaganda erreakzionario hau oinarritzko eztabaida esaltzeko besterik ez da.

Demokrazia eta herri borondatea defendatzea bada auzia, zergatik Estatu aparatua eta PP eta PSOEko buruek hitza ukatzen diete kataluniarrei? Zergatik kriminalizatzen eta jazartzen da eskubide demokratiko bat?

Frankismoaren oinordekoa den Estatu aparatua

PP eta Estatu aparatua izan dira gatazka honen motorra, nazionalismo espainolista atzerakoiena astinduz eta errepresioa erabiliz. Hauen jarraitzearen ondorioz, azken urteetan zabaldutako egin da zapalkuntza nazionalaren sentimendua eta milioika dira egoera honi aurre egin nahi dieten kataluniarrak. Hizkuntza eta erabakitze eskubidearen aurkako erasoak edo Konstituzioko 155. artikulua erabiltzearen mehatxua (autonomia kataluniarra balio-

gabetzea) probokazio estrategia baten zati dira.

Ohiturari jarraituz, burua hauteskunde orokorretan ipinita, PPK gogor egiten dio independentismoari sektore eskuindarren botoa eskuratu nahirik. Frankismoaren semea den Rajoyren alderdiak egoera pozoitu besterik ez du egiten, zatiketa nazionala bultzatuz eta eskubide demokratiko nazionalak ukatuz. PSOEko agintariek ere bide berbera hartu dute berriro, eta ez dute zalantzarik izan eskuinari beren zerbitzuak eskaintzeko. Dirudienez, Catalunyako 127ko hauteskundearen emaitzak eta Ciudadanosen gorakada ikusita, espainismoa erabiltzearen onurez go-

goratu dira abenduaren 20ko hauteskunde orokorretarako.

Mas eta Convergencia: errepresioz, murrizketaz eta ustelkeriaz betetako politika

Mas eta Convergenciak Estatuaren erasoaren biktima moduan azaldu nahi dute beren burua, baina ezin dute gorde beren espediente politikoa. Zainetaraino ustelduta dagoen alderdi burges hau beti jarri da langileen eta gazteriaren eskubideen aurkako erasoaren alde: murrizketa sozialak eta etxekaleratzeak, M15 mugimenduari eta greba orokorren aurkako errepresioa, patronala onuratu duten PPren lege guztiak bozkatu eta exekutatu (lan erreforma adibidez), mugimendu sozialen eta eskubide demokratikoen kriminalizazioa bultzatu (Mordaza Legea)...

Burgesia kataluniarra izan zen 1978an Estatu espainiarreko erregimen erdua Catalunyan eraiki zuena, eta aberatsen, bankarien





eta enpresari handien interesak defendatu dituen langileen belaunaldi ezberdinak zapaltzeari esker. Langile mugimenduaren etsaiak izateaz gain, Catalunya-ren askatasunaren arerioak ere badira.

Orain, CDC eta Mas egoera oso zailean daude eta ahultasun handia dute. Pujol kasua, %3ko komisioren ikerketa... azken 40 urteetan Convergenciak erabilitako ustelkeria azaleratzen ari da; eta honek ondorioak ekarriko ditu. Masek, beste aldera begiratzen saiatzen den arren, ezin du bere iragana desegin: Pujolen gobernuen Conselleria izan zen 1995etik 2003ra, eta ondoren Generalitateko Presidentea 2010az geroztik. Baliabiderik ez zegoela argudiatuz, hezkuntza, osasuna edo zerbitzu sozialak suntsitzen zituzten bitartean, Mas eta bere lagunek diru publikoa lapurtu dute alderdia finantzatzeko, PPK egin duen modu berberean.

Klaseko independentzia eta sozialismoa defendatuko dituen politika

I27ko hauteskundeen ondoren, CUPek egindako adierazpenei esker, ezker independentistak ba-

bes handia lortu zuen: Mas inbestitzeari uko egingo ziotela esan zuten, murrizketa sozialen amaiera eskatu zuten eta eztabaidaren erdigunean klaseko aldarrikapenak kokatu zituzten, hauek eskubide demokratiko nazionalekin lotuz.

Horregatik, ondorengo asteetan Mas eta honen alderdikideen eskutik independentziantz joatea posible dela defendatzea oinarritzko arazoari bizkarra ematea da. Urriaren 27an Catalunya-ko Parlamentean Junts pel Sí eta CUPek aurkeztutako adierazpena orain arte ezker independentistako kideek defendatutako planteamenduetatik urrundu da. Mugimendu honek arnasa ematen die ustelkeriaz inguratuta dauden Mas eta Convergenciari, gai sozialak eta klasekoak albo batera uzten dituen testu orokor baten truke. Burgesiak ez du arazorik adierazpen eta promesa handiak egiteko, baina egunerokoan, orain arte ikusi dugun bezala, bere politika aplikatzen jarraitzen du indar handienarekin.

CUPek ardura handia dauka: Catalunya-ko langileak, gazteria eta zapalduak elkartu behar ditu, eta autodeterminazio eskubidearen aldeko borroka kapitalis-

moaren aurkako borrokarekin lotu behar du. Beharrezkoak dira, batetik, alde batera uztea burgesia kataluniarrarekin egindako akordioak, bestetik, agerian uztea zein den kapitalista kataluniarren benetako aurpegia eta, azkenik, erabakitze eskubideari buruz hauek erabiltzen duten demagogia salatzea eta klaseko independentzia eta sozialismoa defendatuko dituen politikan oinarritzea. Hau da une hauetako eginkizuna.

CUP eta Catalunya si que es pot-ek aktibitate parlamentarioa kaleko borrokarekin lotzea oinarritzkoa da. Funtsezkoa da burgesiaren maniobrak salatzea (bai PPrena eta baita CDCrena), hauen helburua langile klasea zatitzea baita beren politika prokapitalistak aplikatzen jarraitzeko, Troika eta Nazioarteko Diru Funttsaren aginduetara gobernu europar guztiak egiten ari diren moduan. Ez da nahikoa erakundeetara iristea, beharrezkoa da mugimendua antolatzen jarraitzea eta, behingoz, sistema kapitalistaren arau guztiak puskatzea. Hitzetatik ekintzetera pasatuz, mahai gainean jarri behar da langileen eta zapalduen agenda.

Terrorismo jihadistari ez! Gerra inperialistari ez! Zuen gerrak dira, gure hildakoa dira!

Azaroaren 13ko gauean, Paris gogor kolpatu zuen ISISen eraso terroristak. Askok izan dira ikusi ditugun elkartasun adibideak: Parisko osasun zentroetan jendea hiru ordu zain egon zen bere odola emateko. Gazteak, helduak, etorkinak... asko izan ziren lehen minutuetatik sare sozialak erabili zituztenak beren etxeak irekitzeko atentatuek eragindako beldurragatik kaleetan aterpea bilatu ezinik noraezean zabiltzane.

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

Euskal Herria Sozialistatik indar osoz gaitzesten ditugu ekin-tza terrorista hauek. Hala ere, une gogor hauen ondoren ere, beharrezkoa da esatea Mendebaldeko gobernuen politika inperialistak izan direla talde jihadistak hauen sorreraren baldintzak eragin zituztenak: multinazional handi gutxi batzuen interesak defendatzeko, Afrikan eta Ekialde Hurbilean petrolio eta lehengaiak lortzeko gerrak dira erantzule.

Parisko masakrea eragin duten talde terroristak elementu atzerakoiez osatutako indarrak dira. 30eko hamarkadan faxismoak Europan jokatutako oso antzeko papera jokatzen dute: beldurra sortu eta zabaldu munduko edozein herrialdeko biztanleengan. Helburu horrekin ekin zuen ISISek Parisen, eta heburu berdinekin egin zuten Al-Qaeda eta ISISek Afrikako iparraldean eta Ekialde Hurbilean, hainbat hamarkadetakoz zapalkuntzaren ondoren diktaduren aurka Udaberri Arabiarrean altxa ziren mugimendu iraultzaileen aurkako borroka odoltsua erabili zutenean.

Lotsagarria izan da atentatuen ondoren Barack Obama, François Hollande edo Mariano Rajoy entzutea. Atentatu hauek munduko milioika pertsonengan eragindako sufrimendua erabiltzen ari dira beren buruak askatasunaren, demokraziaren eta giza eskubideen bermatzaile bezala aurkezteko. Hauek eta mendebaldeko beste agintari asko izan

dira mota guztietako abentura inperialistak antolatu zituztenak, herrialde osoak suntsituz, Europan sufritu duguna bezalako mina eragin dutenak milioika pertsonengan.

“Giza eskubideen eta askatasunaren defendatzaile” hauek beldurra eta sufrimendua erabili nahi izan dituzte dagoeneko Sirian eta zonaldean garatzen ari zirena baino interbentzio inperialista handiagoa justifikatzeko. Irak eta Afganistango gerrak justifikatzeko AEBek 111ko atentatuen ondoren erabilitako formula berbera da.

Kontrakoa esaten diguten arren, giza eskubideak, ongizatea eta garapen zibilizatua ez daude agintari eu-

roparren arduren artean. Hori ari dira erakusten gerratik, miseriatik eta ISISek beren herrialdeetan egindako basakerietatik ihesean datozen ehunka mila errefuxiatuen aurkako bazterketa, jazarpena eta errepre-sioarekin. Mendebaldearen politika “humanitarioak” milaka pertsona kontzentrazio esparruetan sartzea, mugak ixtea eta errefuxiatuak Europara iristea zailtzeko harresi handiagoak egiteko beste herrialde batzuek finantzatzea esan nahi du. Birtartean, milaka gizon, emakume eta ume bizia galtzen ari dira bidean.

Parisko gertakarien irudi gogorak ikusita, errazagoa da gutxi batzuen interesak defendatzeko gerren ondorioak egunero sufritzen dituzten milioika pertsonen larrian jartzeari. Berdin du gure azalaren koloreak, nazionalitateak edo erlijioak. Gerra inperialisten ondorioak sufritzen dituztenak berdinak dira beti: gazte eta langile anonimoak. Horregatik, argi eta garbi esan behar dugu ezetz terrorismora eta gerra inperialistetara kondenatzen gaituen basakeria kapitalistari.



Azaroaren 26ko Bizkaiako ikasle greba

Ikasle Sindikatuak eta Euskal Herria Sozialistak greba honetarako ekintza batasunean ateratako eskuorria:

A-26an denok grebara!

Hezkuntza publikoa, doakoa, duina eta euskalduna nahi dugu langile klasearen seme-alabentzat!

Hezkuntza publikotik langileen seme-alabak baztertze-ko PPk aplikatutako murrizketen aurka borroka indartsua mantendu dugu ikasleok. Eraso asko izan dira: LOMCE, Wert ministro oihak nazionalitate zapalduetako gazteak "españolizatzea" helburu zuena, beken murrizketa edo 3+2 dekretua. Hemen, LOMCE bezalako neurrien aurka balego bezala azaldu da EAJ baina errealitatea oso bestelakoa da: %100ean elkarbanatzen dute izpiritua eta dagoeneko EAEn aplikatzen ari dira. Euskal eskuinak eskuin espainiarraren errezetak konpartitzen ditu hezkuntza sistema publikoarentzat. Helburua hezkuntza publikoaren aurrekontua murriztea eta murriztea da azken urte hauetan ikusi dugun bezala. Guzti honi unibertsiteateko herstura plan konplexua gehitzen zaio, EHUko hamaika fakultateren itxiera suposatuko duena.

Garbi dago EAJk enpresari eta bankari handien interesak defendatzen dituela, gure interesen erabat kontrakoak direnak, langile familietako ikasleena. PPk gobernu zentralen egiten duen moduan, hemen EAJk politika berbera egiten du: murrizketak, etxe kaleratzeak, gure osasunaren suntsiketa, lan erreformaren aplikazioa eta gure gurasoen kaleratzeak defendatzen dituzte. Krisiaren faktura guk ordaintzea nahi dute eta hori gure eskubideak lapurtzearen eta zerbitzu publikoak suntsitzea-

ren kontura egiten dute. Hezkuntza publikoa erasotzen dute langile familietatik gatozenak hezkuntzatik kanporatzeko eta biharko egunean lan merkatuko esku lan merkea izan gaitezen.

Baina lau urte hauetan erakutsi dugu ez gaudela prest gure gurasoen eta aiton-amonen borrokarekin lortu zen hezkuntza publikoari uko egiteko. Ikasleen mobilizazioarekin bakarrik, gure gurasoeekin eta irakasleekin elkartuta, bermatu daiteke hezkuntza publiko, doako, laiko, duin eta euskalduna. Ikasleek, gurasoek eta irakasleek Euskal Herrian azken urteetan aurrera eramandako borroka eredugarriaren ondoren, guk

garbi daukagu: kaleko mobilizazioarekin jarraitu behar da eraso guztiak atzera bota arte.

Eskuinaren murrizketen aurka! 26an denok grebara!

Esperientziak erakutsi du ikasleen batasuna beharrezkoa dela kapitalistak eta eskuina gogor kolpatzeko. Horrela ulertu genuen milaka gaztek Bilboko kaleak bete genituenean pasa den otsailaren 26ko edo 2014ko martxoaren 27ko deialdiak bezalakoetan. Horregatik, Ikasle Sindikatuak eta Euskal Herria Sozialistak azaroaren 26ko Bizkaiako grebara deitzen ditugu ikasleak Ikasle Abertzaleakeko kideek planteatu duten bezala, eta egun horretan izango diren mobilizazioetan parte hartzeko deia luzatzen dugu. Deialdi hau aurrerapauso bat izan behar da antolatzeke eta hezkuntza gutxi batzuen pribilegio dela uste dutenen eraso guztiei aurre egiteko.

Denok manifestaziora!



Azaroaren 26an denok grebara!

Hezkuntza publiko, doako, duin eta euskaldunaren alde!

Manifestazioa:
12etan Moyua Plazatik
A las 12 en la Plaza Moyua

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA
Euskal Herriko alderdiakopio sozialista

EUSKAL ESKOLA PU

¡Por una educación pública, gratuita, digna y euskaldun!

www.ikaslesindikatuak.net

Ikasle Sindikatua

KONTAKTATU:
IKASLE SINDIKATUA:
www.ikaslesindikatuak.net - Tel: 722 202 250 - ikaslesindikatuak@ikasleak.net
EUSKAL HERRIA SOZIALISTA:
www.euskalherria-sozialista.net - Tel: 905 720 909 - euskalherria-sozialista@hotmail.com

Arnaldo Otegiren askatasuna eta sozialismoaren aldeko borroka

Urriaren 17an 18.000 pertsona (*Gara* egunkariaren datuen arabera) izan ziren Arnaldo Askatu plataformak, Politika Askatuk eta 'Free Otegi, Free Them All' inizatibak deitutako Donostiako manifestazioan Arnaldo Otegi (Sortuko idazkari nagusia) eta Rafa Diezen (LAB sindikatuko idazkari nagusi ohia) askatasuna eskatzeko. Mobilizazio honetan EHBildu, Ahal Dugu-Podemos, PSE, ERC, CUP, BNG, LAB, ELA eta CCOO erakundeetako ordezkariak izan ziren, eta 24 europarlamentariren babesa ere izan zuen. Arnaldo Otegi eta Rafa Diez 2009ko urrian atxilotu zituzten LABen egoitza nagusian Sonia Jacinto, Miren Zabaleta eta Arkaitz Rodriguezekin batera (azken hiru hauek manifestazio hau baino egun batzuk lehenago utzi zituzten aske) Bateragune kasuaren barnean.

IMANOL ARANBARRI

Geroago jakin den bezala, ezker abertzaleko bost kide hauek eztabaida garrantzitsu baterako testua prestatzen ari ziren: ETAREN ekintza armatuaren amaieraren defentsa. Hala ere, Arnaldo Otegi "treguas encubiertas" deitutakoak lortzeaz akusatu zuten.

PP eta estatu aparatuak errepresioaren bidetik jarraitzen dute

Baltasar Garzon epaile ohiak sinatutako espetxeko autoaren 55 orrialdeek (atxilotuek deklaratu eta minutu gutxira bakarrik publikatu zenak) aurreko urteetako makrosumarioetan bultzatutako ondorio berbera zuen: dena ETAREN aginduz egiten zen. Baina, aldi berean, atxilotuak une haietan planteatzen ari zirena onartzen zuen: "El proceso negociador necesita de un escenario de no-violencia y condiciones democráticas". Atxilotuetako bati atzeman omen zitzaiona aipatzen zen beste testu batean, honakoa agertzen omen zen: "El mantenimiento de la estrategia político-militar provoca mayor desvertebración y difumina el proyecto político". Hala ere, Baltasar Garzonek berean jarraitzen zuen atxilotuak akusatzeko helburuarekin: "No se trata de iniciar una

apuesta por las vías políticas institucionales y democráticas, abandonando la violencia terrorista, sino, sencillamente, de adaptar ésta a la evolución de esa peculiar 'apuesta política', en la que los obstáculos no son superados mediante los votos, sino mediante las bombas".

Bateragune kasuko epaiketa 2011ko ekainean hasi zen eta lehenengo egunetik Arnaldo Otegi adierazi zuen azkeneko prozesu negoziatzailearen ondoren, ondorio batera iritsi zirela: "Lejos de solucionar los problemas, la utilización de la violencia o la amenaza de ella en conflictos políticos los enquistó". Bere aldetik, Arkaitz Rodriguezek aipatu zuen ideia hori zabaltzen ari zela progresiboki

"olio mantxa bat bezala". Rafa Diezek, berriz, mugimendu hori 2008ko udazkenean hasi zela eta 2009ko neguan eta udaberrian hazi zela esan zuen, "etengabeko kontraste" baten bitartez eta ezker abertzalean barne eztabaida bat egitearen beharraz hitz egin zuen.

Arnaldo Otegi oso argi zuzendu zitzaion epaileari. Estrategia politiko-militarrarekin jarraitzearen alde zegoen ponentzia alternatibo bat (Mugarri) zegoela azaldu zuen eta, horregatik, beraiena "erradikalki ezberdina" zela. Bere ustez: "ETA pensaba que era posible acumular fuerzas manteniendo la lucha armada y nosotros pensábamos que no". ETAk atentaturen bat egiteari buruzko hipotesiaz honakoa adierazi zuen Otegi: "No sólo sería un suicidio político para nosotros, sino que estaríamos quemando un instrumento que se está comprobando que es vital, con magníficos resultados que mejorarán con el paso del tiempo".

Honek guztiak erakusten du estatu aparatuaren, eskuinaren eta garai hartako Alfredo Perez Rubalcaba Barne ministroaren helburua ezker abertzaleko arduradun garrantzitsu hauen inizatiba politiko berria oztopatzea zela. Gertatutakoa ikusita, dirudienez, eskuinak eta estatu aparatuak nahiago zuten ETAREN ekintza armatuaren





jarraipena, atentatuak beren onura politikorako erabiltzeko. Are gehiago, ETak ekintza armatua uztea iragarri ondoren, antolatu diren neurri errepresibo eta probokazio guztiak edo presoan dispersio politikari amaiera ez eman nahi izatea ezker abertzalearen barne zatiketa lortzeko helburuarekin diseinatuta daudela ematen du.

2009an “erakunde terroristako” kide izatearen delituagatik Arnaldo Otegi espetxera bidali zuen Baltasar Garzon berberak urriaren hasieran telebista kate batean azaldu zuen ez duela zentzurik Otegi espetxean jarraitzeak. Bere iritziz: “La condena que tiene debe de ser reconducida y tiene la posibilidad de hacer mucho más por la paz y por el desarrollo de la situación en el País Vasco fuera que dentro”.

Eskubide demokratikoak eta sozialismoa

Sortuko idazkari nagusia 2016ko apirilean aterako da espetxetik. Rafa Diez, berriz, ziurrenez, beranduago aterako da, dirudienez ez baitiote barkatuko gaixo zuen ama zaintzeko lortu zuen baime-nari esker espetxetik kanpora egon zen denbora.

Arnaldo Otegi ezker abertzalearen eta Sortuko oinarri sozialaren erreferente garrantzitsuena bihurtu da. Behin baino gehiago-

tan kartzela sufritu duen politikari karismatikoa da. Zalantzarik gabe, bere kaleratzeak ikusmin eta ilusio asko sortuko du euskal gizarteko zati handi batean.

ETaren ekintza armatua egokia ez zela onartzeko eta gai hori eztabaidara eramateko ausardia izan zuen Otegi, ezker abertzalearentzat oso gai politiko delikatu baitzen. Dena dela, orain, beharrezkoa da esperientziatik ondorio gehiago ateratzen jarraitzea. Gure iritziz, erabat beharrezkoa da autodeterminazio eskubidearen aldeko borroka sozialismoaren aldeko borrokarekin uztartzea. Erregimen kapitalistaren aurkako borrokarekin, sistema honekin amaitzeko langile klasearen eta zapaldu guztien indarrak elkartuz, posible da askapen nazionalaren aldeko borrokari ekitea.

Euskal gatazka edo Catalunya eta Eskoziako auziak ez dira konponduko “negoziaketa mahai” batean eta gaur egungo sisteman. Ezker abertzalearen zuzendaritza Kolonbiako “bake prozesua”, AEB eta Kubaren arteko “negoziaketak” edo David Cameronen “izaera demokratikoa” eredu bezala jar-tzen aritu da, baina zapalkuntza nazionalak eta klaseko zapalkuntzak ez dute irtenbiderik aurkituko hau sortzen duten arrazoiek existitzen jarraitzen badute. Santosen gobernu kolonbiarraren, Obama-

ren gobernuaren eta David Cameronen gobernu britainiarraren helburua ez da “gatazkak konpontzea”. Klase dominatzailearen interesak defendatuz, beren helburu nagusia hurrenez hurren herri kolonbiarra, herri kubatarra eta herri eskoziarra belauniko jarraztea da. Eta PPren gobernuak, EAJren babesarekin, gauza berbera bilatzen du. Etorkizunean etor daitezkeen “bake” eskaintzek ere helburu berdina izango dute: Euskal Herriko langileak eta zapalduak engainatu eta garaitu askatasun nazionalaren eta sozialaren aldeko borroka suntsitzeko.

Arnaldo Otegi, behin baino gehiagotan bere burua marxistatzat aurkeztu duenak, aukera eta ardur handia du ezker abertzalea masa borrokaren eta programa iraultzailearen defentsaren bidetik bultzatzeko. Eskubide demokratikoen eta autodeterminazio eskubidearen defentsa ezberdintasun nazionalen gainetiko langile klasearen eta zapalduen batasunarekin elkartuko duen alternatiba behar dugu, kapitalista handien boterearekin, beren monopolioekin eta beren instituzioekin amaitzeko. Sozialismoaren aldeko borrokaren programa honek mugimenduan jar ditzake beharrezkoak diren indar sozialak Euskal Herriko eta Europako herri guztietako zapalkuntza nazionalarekin bukatzeko.

Federiko Engels Fundazioaren argitalpen berria: David Riazanoven ‘Marx y Engels’

Federiko Engels Fundazioaren argitalpen berri honek material zoragarri eta bidegabeki ahaztua dakarkigu: David Riazanov boltxebikeak 1922an Moskuko Akademia Sozialistan emandako bederatzi hitzaldiak. Alderdi Komunistako koadroei zuzendutako saio hauetan, Riazanovek Marx eta Engelsen bizitza eta beren lan iraultzailea aurkeztu zituen: “Gai erabat historikoa landuko dut, baina, era berean, lan teorikoa ezartzen diot neure buruari; izan ere, Marx eta Engels maisuez mintzatuko naiz, hauek interesgarri dira historiaren ikuspuntu materialistaren autore eta sozialismo zientifikoaren sortzaile baitira, eta beren metodoa, beren ikuspuntua aplikatuz egin nahiko nuke”.

URTZI REGUERO


Riazanovek gaitasun ikaragarria erakutsi zuen, ez bakarrik Marx eta Engelsek bizi izandakoaren berri emateko, baita beren ondare politikoa aldarrikatzeko ere. Beren garaiko produktutzat, bizi zuten baldintza ekonomiko eta sozialeko produktutzat hartu zituen Marx eta Engels, eta hauek errealitatea aldatzeko borrokari ekiteko hartutako erabakiaz hitz egin zuen.

Bi militante iraultzaile nekaezinen historia

Hitzaldi hauen bidez Marx eta Engelsen pentsamendu bikai-nean sakontzeaz gain, beren espiritu borrokalaria, ekintza militantea, langile klasearen kausaren aldeko grina eta zailtasunetan tinko mantentzeko gaitasuna ere ezagutuko ditugu. Azken finean, sozialismo zientifikoaren sortzaileak ezagutuko ditugu, zeinentzat teoriarik gabeko praktika praktikarik gabeko teoria bezain itsua zen. Marx eta Engels langile klaseak behar zuen tres-

na politikoa eraikitzeko gogor lan egin zuten bi antolatzaile nekaezin izan ziren. Komunisten Ligaren sorrera dela eta, Riazanovek hauxe dio: “Historialariei oharkabeen pasatu zaie Marxek egindako antolatzaile lana, kabineteke pentsalari bezala aurkezteten baitute, eta Marx antolatzaile paperean ezagutu ez dutenez, ez dute bere izaeraren alderdi interesgarrienetako bat ezagutu”. Riazanov irakurrita, Engelsek bere kamarada eta adiskidearen hilobiaren aurrean esandako hitzek dimentsio handiagoa dute: “Marxen arabera, zientzia zen historiaren indar higiarazlea, indar iraultzailea (...). Izan ere, Marx, ezeren gainetik, iraultzailea zen (...). Borroka zen bere elementua. Eta gutxik adinako pasioz, nekaezintasunez eta arrakastaz borrokatu zuen” (Engelsen diskurtsoa Marxen hilobiaren aurrean 1883ko martxoaren 17an).

David Riazanov, izenez David Zimkhe Zelman Beroz Goldendachen, iraultzaile nekaezina izan zen, urri sobietarrean lehen lehen protagonista eta Marx eta



Riazánov

Marx y Engels
Su obra revolucionaria

Engelsen lan teorikoa biltzen eta zabaltzen aitzindari. 1870ean jaio zen Odessan, 14 urterekin hasi zuen Tsarraren aurkako militantzian, lehenengo narodniki bezala eta ondoren sozialdemokrata (marxista) bezala hiru urte beranduago. Errusiar estatuak bere ekintza militantea zigortu zuen zenbait atxiloketekin eta, azkenik, erbestearekin.

Dena dela, Errusiatik behartuta irten arren, ez zen bere konpromisoa gutxitu, Europa osoko liburutegi eta artxiboetako lana garatzen lagundu zion, baina, batez ere, SPD alderdiko liburutegia eta Marx eta Engelsen eskuizkribuen depositua ezagutzeko aukera izan zuen. Laura Lafargue Marxen alabaren adiskidetasunari esker, familiako artxibo baliotsua ere ezagutu ahal izan zuen. Hala ere, ez zuen dokumentazio lan erraldoi eta

zehatza bakarrik egin; Riazanoven helburua haratago zihoan, Marx eta Engelsen lan teoriko eta praktikoa zabaltu nahi zuen militante gazte eta langileen artean. Bere irmotasunak jaso zuen saria iraultza boltxebikearen garaipena izan zen.

Antolakuntza aldetik Riazanov hasieran batean ez zen lerratu ez boltxebikeekin, ez mentxebikeekin, baina Errusiara erbestetik itzultzean, 1917ko otsailean Tsarra erori ondoren Alderdi Boltxebikera batu zen. Urriko Iraultzaren garaipenaren ondoren, bere lana ezinbestekoa izan zen 1919an Akademia Sozialista sortzeko. 1920ko bukaera aldera, Alderdi Boltxebikeko komite zentralak Marxismoaren Museoa sortzeko proposatu zion, baina Riazanovek proiektu zabalagoa aurreikusi zuen: marxismoaren obrak ikasteko institutua, koadro komunisten formakuntza gune bilakatuko zitzatekeena eta helburutzat Marx eta Engelsen lan guztien edizioa egitea izango zukeena. 1921ko urtarrilean, Alderdi Boltxebikeko komite zentralak Riazanovek proposatutako Marx-Engels Institutua sortzea onartu zuen.

Marxismoaren espiritu bizi, zorrotz eta kritikoa

Ororen gainetik, Riazanoven lanak erakusten duenez, Marx eta Engelsek burgesiarekiko beregaina den klase independentzian oinarritutako politika tinkoa egin zuten. Hala kontatzen du konferentzietako batean 1848ko Parisko proletarioen altxamendu iraultzailea zapaltzen izandako jarrera azaltzean. Marx eta Engelsek *Renaniar Gazeta Berria* egunkari demokratikoan parte hartzen zuten, eta bertan “artikulu suhar bat” argitaratu zen “zeinetan burges berdugoak eta demokraziaren sateliteak salatzen ziren. Artikulu hau 1848eko ekainaren 28an idatzi zen, eta ez da demokrata baten lumaz idatzia:



komunista bat soilik izan liteke egilea, eta beren taktikagatik Marx eta Engelsek ezin zezaketen inor engainatu. Egunkariak berehala galdu zituen burges demokratek ematen zituzten diru laguntzak, eta horrela Koloniako langileen benetako organo bilakatu zen, langile alemaniarren organo”.

Riazanoven lan zoragarri hau stalinismoaren gorakadak ito zuen, langile klasearen gizartearen gidaritza politikoa lapurtu zuen erreakzio burokratikoak. Riazanoven lanak, Marx eta Engelsen benetako pentsamendua zabaltzeak, agerian uzten zuen Stalin eta bere taldeak marxismoaren ideiak eta programa degeneratu zutela eta bertatik aldentu zirela. Honi gehitu behar zaio Riazanovek baztertu nahi ez zuen jarrera kritiko eta beregaina. Victor Sergek bertute baliotsu hau lekukotu zuen: Stalinekin 1927an Institutua bisitatu zue-

nean eta Marx, Engels eta Lenin argazkiak ikustean Riazanovi haxe galdetu zion: “Non dago nire erretratua?”. Eta Riazanovek erantzun: “Marx eta Engels nire maisuak dira; Lenin nire kamarada izan zen. Baina, nor zara zu niretzat?”. Handik gutxira, 1931n Riazanov atxilotu zuten eta Volgako eskualdera deportatu zuten. Azkenik, 1938ko urtarriaren 21ean epaitu zuten atea itxirik ordu laurden baino gutxiagoan; heriotzara kondenatu eta exekutatuta egin zuten.

Bortizki hil arren, Riazanoven lana, marxismoaren espiritu kritikoa, bizia, ausarta, gertakari berrien egarri dena, ez zuten zapaldu eta ez dute zapalduko. Gizateriaren emantzipazioaren alde borrokatu zuten gizon eta emakume handi horien lanak gaur egun ikasteko erabiltzen ditugun ondare dira eta sozialismoaren aldeko borrokarako ezinbesteko tresna bilakatzen ditugu.

Errepresio eta okupazio sionistaren aurkako borroka palestinarraren berpiztea

Iraila erdialdeaz geroztik gertatzen ari den prozesu geldiezin batean, Zisjordaniako eta Gazako milaka palestinarrak, batez ere gazteak, Israelgo estatu zapaltzaileaz nazkatuta borrokara atera dira guda desorekatu batean, ia armarik eta zuzendaritza politikorik gabe. Hemen ikusten da azken hamarkadetako injustiziarekin amaitzeko duten borondate ikaragarria. Borroka honetarako armarik garrantzitsuena, inoiz baino gehiago, programa iraultzaile bat da. Boterea duten gutxi batzuen (eta Estatu sionistako txotxongiloen) aurrean, zonaldeko herritarren gehiengoak batuko duena.

IBAN PEREZ

Langabezia, miseria eta Palestinako herriaren etengabeko zapalduaren frustrazioak eragiten du probokazio sionistekin dagoneko oso lehor dagoen lur batek beste behin sua hartzea. Benjamin Netanyahuren gobernu ultrasionistak juduen eta islamiarren gune santu diren Meskiten Lautadan enfrentamenduak sustatu zituen nahita. Eremu hau Palestinako sinbolo nazionala ere bada. Israelgo Estatuak turismo judutarra sustatzeko politika aurrera eraman du gune honetan; koherentea Jerusalem osora zabaltzeko bere politikarekin. Horrela, gutxina-gutxina populazio palestinarra kanporatu eta kontrola lortzen dute hiru erlijio monoteistek bat egiten duten eta oso sinbolikoa den eremu erlijioso batean.

Probokazioa soilik ez zen izan Meskiten Lautada ultraortodoxoek inbaditu izana. Gobernuak manifestazioak debekatu zituen. Ordura artekoak baketsuak izan ziren arren bortizki erreprimitu zituzten. Bitartean Uri Ariel nekazari ministroa (Judutar Etxea alderdi ultraerlijiosoko kide) gunetik paseoa zegoen, Ariel Sharon bezala 2000. urtean bigarren Intifada probokatu zuenean. Ez dago kasualitate-rik, dena estrategikoki kontrolatua dago.

Dena den, hau soilik izebergaren punta besterik ez da. Distantziakide izatearen itxura ematen saiatzen diren komunikabideek behin eta berriaz gordetzen dituzte gatazkaren arrazoiak (eta zer esanik ez batzuei terrorista edo "otso bakartiak" deitzen dieten bitartean, okupazio indarrak ordena mantentzera dedikatzen direla esaten dutenez): mende erdi dirauen okupazioa, Gazari egindako blokeo kriminala munduko kartzelarik handiena bihurtu da; baliabide ekonomikoen kontrola; indar sionisten erabateko inpunitatea behin eta berriro Gaza bonbardatzeko eta Zisjordaniaren esku hartzeko... Aurten, oraingo ezteandaren aurretik bakarrik, 30 palestinarrak hil ziren po-

liziaren, armadaren edo kolonoen esku eta ehunka atxilotuak izan ziren.

Palestinarren %42ak borroka armatua babesten du

Haaretz egunkari israeldarraren arabera, Palestinako populazioaren %42ak uste du askapen nazionalerako bide bakarra borroka armatua dela. Eta normala da, kontuan izanda bizi den muturreko egoera. Zisjordaniako populazioaren %65 pobrea da; Gazan % 90a (eta %70ak laguntza humanitarioaren menpekotasuna dauka). Gazako drama izugarria da: Israeleko armadak eragiten duen sarraskiak eta blokeoak ondorio ikaragarriak ditu; ehunka hiltzen dira mediku tratamendu faltarengatik, umeen %75ak anemia dauka; lasaigarriekiko dependentzia zabaltzen ari da. Zisjordaniako harresiaren erai-kuntzak milaka familien bizitza pikutara bota du; 400 kaleratuak izan ziren eta 12.000 prekarietatean eta isolatuta bizi dira harresia eta Marra Berdearen artean (Israel eta Zisjordaniaren arteko muga). Gainera 170.000 akre desjabetu dira eta ehun mila olibondo sustraitik atera dira. Israel eta bere milioi erdi kolonoek Zisjordaniako Tulkarem, Kalkilia



eta Beleneko uraren erreserba kontrolatzen dute.

Horrela uler daiteke zenbait sektorek, beste irteerarik ikusten ez dutelako, judutar zibilei aiztoekin edo kotxeekin oinezkoak harrapatuz eraso izana. Ekintza hauei buruz asko hitz egiten da, aldiz polizien eta armadaren aurkako palestinarren mobilizazioak eta enfrentamenduak isilarazi egiten dituzte, ez bakarrik Zisjordanian eta Gazan, baita arabiar-israeldarrak gehiengoa diren eremuan ere. Klase borrokara masiboki batu dira gazte palestinarrak, eta horrek ondorio positiboak izango ditu.

Estatu terrorismoa

Gobernuak, bere aliatuek eta komunikabideek mundu osoan era nazkagarrian sustatutako histeria antipalestino guztiak ezin du ezkutatu judutar gutxi batzuen aurrean 100 palestinaren baino gehiago hil izana Estatuaren errepresioarengatik, eta horietatik gehienez heren bat ziren erasotzaileak (eta hori poliziaren arabera). Biktima horien artean daude 13 urteko haur bat poliziak balaz jositia Belenen, beste bat Ramalan edo haurdun zegoen emakume bat eta bere bi urteko alaba, Gazako bonbardaketa kriminalean hilak urriaren 10ean. Beste kasua Mila Abtumen izan zen: Eritreako etorkin hau judutarrek faltsuki identifikatu zute Beer Shevako autobus geltokiko tiroen autore bezala. Abtum, larriki zauritua izan zen, soilik bere itxurarengatik jendetzak jipoitua, eta ospitalean hil zen.

Zonaldeko terroristarik handiena gobernu sionista da. Okupazioa mantentzeaz gain errepresio masiboa erabiltzen du herri palestinarraren aurka. Gainera aurreiritzi okerrak sustatzen ditu judutar populazioaren artean. Palestinarrak eta Israelgo arabiarrek erasotzen ditu Israeleko mutur eskuinak aiztoekin edo kotxeekin harrapatuz, gobernu propagandak sustatua. Hala ere, ekintza hauek komunikabideetan ez dira azaltzen.

Borroka palestinarraren aurrean Netanyahu emandako erantzuna betiko ildo beretik joan da. Ustezko erasotzaileen edo beraien familien etxebizitzak eraistea, gainera lur berdinean berriro eraikitzea debe-



katuz, eta ondareen desjabetzea; atxilotze administratiboaren generalizazioa, hau da, muga gabeko kartzelatzea epaiketa gabe; benetako balak erabiltzea harriak botatzen dituzten manifestarien aurrean eta urteetako zigorra beraientzat; eta Jerusalemgo palestinaren auzoen blokeoa. Lehen ministroak ziurtatu du ez dela egongo mugarik segurtasun indarren ekintzarako.

Issawiya, Shur Baher, Silwan eta Ras el Amud arabiar auzoen eta Shuafat errefuxiatu esparruen blokeoak ghetto palestinarrak sortzea du helburu, eta Palestinak jasaten duen eguneroko biolentziaren zati da. Jabel Mubaker auzoan ere harrisi bat eraikitzen hasi ziren, baina bertan behera utzi behar izan zuten ultrasekuindar ministroen presioarengatik. Ez dute utzi nahi Jerusalemgo arabiar auzorik kolonizatu gabe, eta alternatiba bezala auzoko teila-tuetan frankotiratzaileak ezarri nahi zituzten. Autoritate Palestinarra militarki deuseztatzeko presionatzen duten berberak dira.

Askapen nazional eta sozialerako programa iraultzaile baten alde

Borroka palestinarraren olatu hau ez du sustatu ez Al Fatah-k ezta Hamasek ere. Palestinako Autoritateko lehendakari Mahud Abbasek soilik ONUk egiten dituen adierazpen antzuak aurkeztzen ditu borrokaren alternatiba gisa, Amerikako Estatu Batuei eta antzerako potentzia inperialistei Israeli presioa egiteko eskatzearekin batera.

“Gatazkaren gorakada ez zen hasi Israelgo kolonien hilketekin, lehenago baizik. Egutero hiltzen, zauritzen eta atxilotzen dituzte palestinarrak”. Horrela azaltzen du egoera azken hamahiru urtean kartzelan pasa dituen Marwan Barghouti lehen Intifadako aktibista eta, ziurrenik, palestinaren agintaririk baloratuenak. Barghoutik zoriondu egiten du inoren agindurik itxaron gabe bere eskubideen alde eta okupazioaren aurka borrokatzen duen belaunaldi berria. Armarik gabe borrokatzen dute zonaldeko potentzia militar handienaren kontra. Hala ere, Barghoutiren arabera, ezin da egin negoziatzearekin Israelekin, honek ez badu konpromiso argi bat hartzen 1967tik okupatuta dauden Palestinako lurretatik erretiratzeko. Politika kolonialen amaiera, autodeterminazioa eta errefuxiatuen itzulera, eta preso guztien askapena ere eskatzen ditu. Borrokarako minimoz betetako programa da hau, garaipena lortzeko bide bakarra. Guk honi gaineratzen diogu: hau guztia lortzeko beharrezkoa da klase dominatzaile israeldarrak zonalde osoan, eta baita Israelen bertan ere, duen boterearekin amaitzea. Horregatik behar-beharrezkoa da programa iraultzaile bat, langileak batuko dituen, Palestinakoak edo Israelgoak izan, burgesiaren baliabideak desjabetzeko, eta hauek demokratikoki kontrolatzeko eta elkarbanatzeko. Herri palestinarraren askatasunaren alde, okupazioaren kontra eta zonaldeko Federazio Sozialista baten alde!

Siriako joko inperialista

KONTRAPORTADAN HASTEN DA

lortzen baziren. Estrategia hau indar guztiz erabili zuten Egipton, Libian eta Yemenen, Tunisian saiatu egin ziren, eta Sirian eragin ditu ondorio odoltsuenak. Al-Assaden erregimenaren aurkako lehen mugimendua, argi eta garbi ezkerrekoak ziren aldarrikapen sozial eta politikoekin sortu zen hainbat hiritan. Mugimendu hau porrotera eraman zuten AEBen zerbitzura zeuden indarrek eta bere aliatuek. Horrela, indar inperialistek ekipaturik eta finantzaturik gerra hasi zuten talde jihadistiek.

Zonaldeko agente erreakzionarioenak eta Washingtonen aliatu leialenak diren Turkiak eta Saudi Arabiak Estatu Islamikoa babestu zuten. Talde jihadistista hau Iraken hasi zen indarra hartzen 2003ko Estatu Batuen inbasioaren ondoren herrialdea desegituraturik geratzearen ondorioz. Zonaldean borrokatzen ari ziren beste talde jihadistista asko barneratuz, Iraken eta beste herrialde batzuetan indar ugari erreklutatuz, eta Mendebaldearen armekin eta finantzaketa eskuzabarekin, Estatu Islamikoak Irakeko eta Siriako lur eremu zabalak konkistatu ahal izan zituen 2014an. Afganistango talibanekin gertatu zen bezala, Estatu Islamikoko buruzagiak Estatu Batuetako kontroletik aldendu eta beren agenda militar eta politiko propioa aurrera eramaten hasi ziren.

Estatu Batuen ahultasuna eta Errusiaren esku hartzea

Sirian nahiz Iraken egoerak okerre-egiteak Estatu Batuen posizioa ahuldu du, batez ere zonalde horretan babes fidagarririk ez izateagatik. Teorian aliatu bezala dituen Turkiak eta Saudi Arabiak ere beren kartak jokatzeko dituzte: Estatu Islamikoa eta Al Qaeda loturiko hainbat talde islamista babestuz, beren etsai historikoen aurka borrokatzen dute, Iran eta Hezbollah, edo PKKren milizia kurduak. Bes-

talde, Washingtonek Damaskoren eta jihadistien aurka borrokatuko lukeen “indar moderatu” bat altxatzeko zituen planek porrot latza jaso dute. Arrazoi horiek azaltzen dituzte Obamaren zalantzak Estatu Islamikoaren posizioak erasotzeko orduan. Airezko operazioak itxurakeria besterik ez dira irteerarik gabeko kale itsuan dagoela ezkutatzeko.

Estatubatuarrak hainbat mugimendu egiten saiatu dira eskuetatik alde egiten ari zaien dinamika gaitzetzeko asmoz. Iranekin egindako ituna zentzu honetan doa. Aspaldi-



ko “etsaiak” behar dituzte Irakeko egoera egonkortzeko eta Al-Assad kendu osteko agertoki posible batean beraiekin kolaboratzeko. Obamaren eta bere Estatu idazkariaren azken adierazpenek tonu ezberdin bat erakutsi dute azkenaldian, Damaskoko erregimenarekin negoziaketak posible bati ateak irekiz. Mula irandarrak, beraz, gaizkiaren ardaztatze aliatu izatera pasa dira, Israelgo sionisten eta Saudi Arabiako errege familiaren haserre piztuz.

Estatu Batuen ahultasuna izan da Errusiari Siriako gatazkan militarki sartzeko aukera ireki diona. Honen aurrean, iparramerikarrek zein bere aliatu europarrek ezer gutxi egin ahal izan dute protesta “adierazpen” patetiko batzuek aparte. Garrantziatsua da jakitea Errusiaren bizkarra zaintzen Txina ari dela, eta babes honi esker Putinen gobernuak mahai gainean ukabilkada bat emateko aukera egokia ikusi duela, Ukrainian egin zuen bezala.

Moskuk urteak eman ditu bere eragin guneetan atzera egiten eta NATOren aurrean porrot politikoak jasotzen, baina orain beste eskenatoki bat agertzen ari da korrelazio indar aldakorrek bultzaturik. Egia da, bestalde, Errusiaren hegazkinen eta armadaren esku hartzea Al-Assaden armadarentzat momentu oso delikatu gautzat direla, erregimenak herrialdearen %25a baino kontrolatzen ez duenean. Siriako armadako indarrak ahituta daude, eta oso ahulduta bajengatik eta desertzioengatik. Honi guztiari Al-Assadek kontrolaturiko gunean herritarrek

pairatzen dituzten baldintza katastrofikoak gehitu behar zaizkio: bertan ozta-ozta iristen diren laguntza humanitarioak ez du ezer konpontzen. Damaskoko erregimenaren erorketak arriskuan jarriko lituzke Errusiaren interesak, Tarsusen duen ontzi basearen jarraipenetik hasita, berebiziko garrantzia duena Errusiarentzat Mediterraneoan duen bakarra baita.

Arrazoi horiek guztiak direla-eta ireki da Errusiaren esku hartzeko aukera aire erasoaren kanpaina baten bitartez, lurrean tropa irandarren eta Hezbollahko milizien laguntza duelarik. Irakeko gobernuak ere koalizio honetara gehitu da, azken batean Iraneko gobernuaren interesei erantzuten baitie. Horrela, beraz, Errusiak gune honetan dituen interesak Al-Assad salbatzea baino askoz haratago doaz. Indar erakustaldiak hainbat helburu ditu. Lehenik, bere posizioa potentzia inperialista gisa berrestea eta krisi ukrainarrak geroztik AEB eta bere aliatuak ezartzen saiatu diren isolamenduarekin apurtzea, etorkizunean izan daitekeen edozein negoziaketetan aktore klabe gisa bere tokia hartzeko. Bigarrenik, Putinen oldarkortasunak Errusiak bizi duen egoera ekonomiko larriari ere erantzuten dio. Lehiakorra ez den ekotzpen sistema zaharkitu batekin, petrolio eta gas naturalaren esportazioaren menpe dago erabat ekonomia errusiarra eta lehengai hauen

prezioek lur jo dute azken hilabetee-tan. Azken urtean bakarrik, hiru milioi errusiar erori dira pobrezian. Errusia bere jokoa egiten ari da zonaldean eta momentuz bere interesak Al-Assaden jarraipenari lotzen bazaizkio ere, ez du zalantzarik egingo aurrerago hau sakrifikatzeko edo aliantza politika aldatzeko, horrekin egoera hobetu badezake.

Erdoganen eta Estatu Islamikoaren arteko harremanak

Lehen momentutik Turkia izan da Estatu Islamikoaren euskarri nagusia: lur eremu turkiarretik jaso dituzte armak eta borrokalariak, eta bertatik eraman dute aurrera petrolioaren kontrabandoa, maila handian, finantzazio iturri nagusi dutena. Taktika honekin, Erdoganek Estatu Islamikoa kurduen aurkako tresna gisa erabili du, Siriako iparraldean kurduak gune independente bat edukitzea eragozteko eta Al-Assadekin amaitzeko, bere arerio nagusia baitu, Iranekin batera, zonaldean.

Baina Turkiako estatu-aparatuaren eta Estatu Islamikoaren arteko lotura askoz haratago doa, ezkerren aurka Surucen eta Ankaran egindako atentatuak erakusten duten bezala. Agerikoa izan da bi atentatuak egileak islamistak izateaz gain, segurtasun zerbitzu turkiarren laguntza izan dutela. Azken hauteskundee-tan emaitza onak eskuratu arren, Erdogan egoera oso zailari aurre egiten ari zaio krisi ekonomikoaren eta ezkerren mobilizazio gaitasunaren gorakadaren ondorioz. Atentatu hauek beldurraren estrategia bezala erabiltzeko balio dute, nazionalismo turkiarra astintzeko eta honekin ezkerren aurkako errepresio politikoa areagotzeko eta PKKren aurkako eraso militar berriak justifikatzeko.

Turkiak geroz eta fidagarritasun gutxiago eduki arren, inperialismo estatubatuararentzat eta europararentzat, Europako Batasunak Erdoganen gobernuari babes osoa ematen jarraitzen du zalantzarik gabe. Angela Merkelek Europar Batasuneko sarrera azkartzea hitz eman dio Turkiari. Honen atzean beste arrazoi odoltsu bat ere badago: Europako Batasunak Turkia estatu

tapoi batean bihurtzea nahi du Siriako eta beste herrialdeetako errefuxiatu berriak Europako lurretara iristea galarazteko. Gaur egun milioi bat errefuxiatu baino gehiago daude Turkian, eta garbi dago Erdoganek Europako mugetako jendar-mearena egiten jarraituko duela Europako Batasunetik kontzesio gehiago lortzeko eta honek beste alde batera begira dezan jihadismoarekin eta Estatu Islamikoarekin dituen begi bistako loturen aurrean.

Iran eta Saudi Arabiaren arteko borroka

Mendebaldearentzat joko inperialista are gehiago zailtzen da, kontuan hartzen bada Siriako eta Ekialde Hurbileko gertaeretatik onura gehien ateratzen ari dena, zalantzarik gabe, Iran dela. AEBkin sinaturiko azken itunak beraientzat garaipen politiko handia esan nahi du, urteetan jasandako santzioen politikaren amaieratik probetxua aterako baitu Teherango gobernuak. Baina akor-



dio honek ez du inolaz ere adierazten interes estatubatuarren menpe jarriko direnik, Errusiarekin duten aliantzak erakusten duen bezala. Teheranek armamentu asko jasotzen du Putinen herrialdetik. Iran da Al-Assaden erregimenaren babesle handienetakoa, eragin handia edukitzen jarraitzen du herrialde horretako komunitate xiitan eta funtsezko papera edukiko du etorkizuneko Siriako trantsizio prozesuan.

Iranek indarra hartzea larritasun handiz ikusten du zonaldeko bere arerio nagusiak, Saudi Arabiak. Saudiek jada mahai gainean jarri dute segurtasun kolektiboko plan bat golkoko monarkien aliantza indartzeko eta Iranen mehatxua geldia-

razteko. Yemenen esku hartze militar bat gauzatu zuten houthisen aurka —Iranek babesturiko frakzio yemendarra— milaka hildako eraginez eta begi bistan dauden arrazoiengatik Mendebaldeak ez zion inolako garrantzirik eman. Esku hartze honek, Teherani mezu bat bidaltzeko xedea ere bazuen, bere inguruan influentzia irabazten saiatzen bada besoak gurutzaturik ez dela gertuko esatekoa. Saudien eta irandarraren arteko tentsioak goraka egin du azken asteetan: alde batetik akusazio gurutzatuak egon ziren Minako Hajjean gertaturiko giza uholdeengatik hildako 464 irandarrengatik, eta beste aldetik Bahreinek, aliatu saudi garrantzitsua denak, bere enbaxadorea kendu zuelako Teherandik, Iran barne auzietan sartzen dela salatuz. Errusiak eta Iranek Sirian egindako esku hartze militarra golpe gogorra da “Konkistaren Armadarentzat”. Jabhat Al-Nusra eta Ahrar Al-Shamez talde jihadistiek osatutako koalizio militarra da, eta Arabia eta Qatarretik jasotzen dute beren finantziazioaren zati handi bat.

Azken urteetan Siriako eta Ekialde Hurbileko egoerak okerrera besterik ez du egin geroz eta aktore internazional gehiagok bere eskuak zonaldean sartu dituzten heinean. Sirian ezin da alde guztien nahiak aseko dituen konponbiderik planteatu. Errusiaren helburuak kontraesanean daude guztiz AEBenekin, eta berdin Iranekoak Saudi Arabiarekin edo kurduenak Turkiarekin. Bake plan oro oinarri oso prekarioetatik abiatuko da, eta nekez izango da iraunkorra. Arazo nagusia jada ez da Al-Assad, egun bere aliatu direnek ere ez bailukete zalantzarik edukiko hau boteretik kentzeko etorkizunean beharrezko ikusiko balute; ezta talde jihadistak ere, azken batean inperialismoaren zerbitzura dauden elementu kontrairaultzailak dira. Arazoa inperialisten arteko borroka da. Ekialde Hurbilean, Afrikan eta munduko beste tokietan geroz eta eskualde gehiago ari dira interes inperialista hauen ondorioz basakerian eta gerran hondoratzen. Horregatik, irtenbideak iraultza sozialistaren beharra planteatzen du berehala gauzatu beharreko eginkizun historiko gisa.

Siriako joko inperialista

Sirian Errusiak egindako esku hartze inperialistak mahai gainean jarri du, nazioarteko harremanetan handituz doan tentsioaz gain, mundu mailako indarren arteko korrelazio berria. Estatu Islamikoaren guneak gogor bonbardatuz, Putinek agerian utzi du Washington, Londres, Ankara edota Riaden hipokrisia, hitzez jihadismoaren milizia armatuen aurka borrokatzen dutela esan arren, aspalditik Al-Assadekin amaitzeko tresna gisa erabiltzen baitute.

IKER OTERMIN

Siriara demokrazia eta egonkortasun politikoa eramatenetik urrun, Mendebaldearen maniobra kriminalek herrialdean ikaragarritzko kaosa eta suntsiketa eragin dute. Gatazka honek eragindako ehunka mila hildakok, milioika lekualdatuk eta errefuxiatuek, gerra hau historiako krudelenetakoa bihurtu dute. Afganistanen eta Iraken erabilitako estrategia berbera errepikatuz, jihadismo erreakzionario eta eroenaren aurrerapausoak Mendebaldeko inperialismoaren eta NATOren porrotaren beste erakusgarri bat dira.

Siriako gerra

Zalantzarik gabe, Ekialde Hurbileko joko inperialistak garrantzia handiko gertaera historikoa markatzen du potentzia inperialisten arteko borro-

kan. Egoera hau Bigarren Mundu Gerra hasi aurreko garaiarekin bakarrik aldera daiteke historikoki. Orduan bezala, orain ere arazoaren jatorria kapitalismoaren egiturazko krisi egoera da; eta honek geroz eta gehiago sakontzen jarraitzen du Txinako burtsaren burbuilaren leherketak erakutsi duen moduan. Potentzia inperialista guztiak, baita tokiko hegemonia bat lortzea helburu dutenak ere, krisia saihesten eta dituzten barne arazoak konpontzen saiatzen dira, atzerrian beren presentzia politikoa eta komertziala sendotuz. Honen guztiaren atzean, AEB eta Txinaren arteko mundu mailan gailentzeko borroka dago, eta beren atzetik eramaten dituzte bando bateko zein besteko aliatuak mundu guztian zehar: Latinoamerikan, Afrikan, Ukrainian, Asian eta, noski, Sirian eta Ekialde Hurbilean.



Siriako gerra 2011n hasi zen "Udaberri Arabiarraren" ezteandarekin sortu zen prozesu iraultzailearen ondorioz. Herrialde hauetako oligarkiarentzat, eta batez ere AEB, Turkia, Saudi Arabia eta Golkoko hainbat monarkientzat alarma guztiak piztu ziren mugimendu hau ikustean, eta kontsekuentez jokatu zuten. Iraultzak sustatzetik urrun, inperialistek masa mugimendu hauek beren interesetara desbideratu zituzten, horrek estatu golpeak antolatzea, herrialde hauetako lurralde batasuna apurtzea, milizien eta gerrako jaun berrien agerpena bultzatzea edota bertako azpiegitura eta ekipamendu sozial minimoak bonbekin suntsitzea esan nahi bazuen ere. Horrela beraz, jihadistak erakundeak armatzea eta hauen ekintza eremua zabaltzea ez zen inolako arazoa, modu honetan helburuak

14. ORRIAN JARRAITZEN DU

**Defendatu sozialismoaren aldeko ideiak gurekin!
Lagun iezaguzu aldizkaria Euskal Herri osoan zabaltzen!**

www.euskalherriasozialista.net • euskalherriasozialista@hotmail.com • Tel.: 685 720 939
Twitter: @EHSozialista • Facebook: Euskal Herria Sozialista

EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN! LAGUNDU LANGILEEN PRENTSA ZABALTZEN!!!
Lagun iezaguzu sozialismoaren aldeko borroka bultzatzen zure harpidetzarekin!!
Urteko harpidetzak (6 ale) 10 euro balio du.

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

Euskal Herriko aldizkari marxista